



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko irailaren 28a

77. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da alda ditzan langabezia-babesa agortu duten pertsonentzako Prepara Planari abuztuaren 24ko 23/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez eginiko murrizketak. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doako aholkularitza-zerbitzu bat sor dezan etxebizitza-utzarazpen egoeran dauden pertsonentzat. Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira bertan behera utz dezaten eskola-materialaren gaineko BEZaren igoera. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da jarraipena eman diezaion zenbait ikas-tetxetako garraio publikoaren finantzaketari. Socialistas de Navarra, Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldek aurkeztu dute (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat presta dezan Donapea IPIaren instalazioak orain dauden tokian mantentzeko aukerari buruz. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da burtsan egiten dituen inbertsioak arautu ditzan. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan Audenasarekiko merkataritza- eta dirulaguntza-politika. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren prozedurak ezar ditzan hizkuntza-eskubideak betetzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da zerbitzu jarraitua ematen segi dezan Oronoz-Mugairiko osasun etxean. Osasun Batzordeak onetsia (14. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira erabat errespetatzen dituzten Parlamentu honek onetsitako legeak eta zehatz-mehatz bete ditzaten osasun arloko Nafarroako foru legeak. Osasun Batzordeak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, Unicefek sustatutako “Una Promesa Renovada” kanpainarekin bat egitekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatu eta gaitzetsi egiten baitu Gobernuak legea bete nahi ez izatea, eta, hala, Nafarroako Parlamentuari bere kontrol-eginkizuna egiten ez uztea. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, *Danza Escena* programa bertan behera uzteko arrazoiei buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (16. or.).
- Galdera, zenbait deialdi bertan behera uzteko foru aginduen gaineko iritzari buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (17. or.).
- Galdera, *Danza Escena* programa bertan behera uzteko arrazoiei buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Ledeako zubiaren egoerari buruzkoa, Maite Esporrín Las Heras andreak egina (19. or.).
- Galdera, *fracking* izeneko gas-erazketa teknikari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (19. or.).
- Galdera, kanpoan kontratatu behar izan diren publizitate, propaganda edo kanpainetan eginiko gastuari buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egina (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Foru Lege proiektu honi zuzenketak aurkezteko epea **2012ko urriaren 19ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea: "Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen

duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena". Aipatu foru lege proiektua 2012ko ekainaren 29ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da alda ditzan langabezia-babesa agortu duten pertsonentzako Prepara Planari abuztuaren 24ko 23/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez eginiko murrizketak.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita alda ditzan langabezia-babesa agortu duten pertsonentzako Prepara Planari abuztuaren 24ko 23/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez eginiko murrizketak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten du, eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da alda ditzan langabezia-babesa agortu duten pertsonentzako Prepara Planari abuztuaren 24ko 23/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez eginiko murrizketak.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Prepara Planari abuztuaren 24ko 23/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez eginiko murrizketak baliogabe ditzan eta otsailaren 11ko 1/2011 Errege Lege Dekretua luza dezan,

ondokoak helburu: enplegurako iragatea ziurtatzea, enplegu-politika aktiboen eta laguntza ekonomiko osagarrien arteko koordinazioa areagotzea eta gizarte bazterkeria ekiditea.

Zioen azalpena

Langabezia da espainiarren arazo nagusia. Gobernuaren jardunak egunez egun larriagotzen ditu arazo hau eta arazo honek herritarrentzat dituen ondorioak negatiboak. Biztanleria aktiboen azken inkestak agerian jartzen du langabeziaren hazkunde dramatikoa, iraupen luzeko langabetuen kopuruaren igoera eta bere kide guztiak langabezia ditzuten familien kopuruaren igoera. Inkestak langabeziaren igoerak islatzen ditu, aurtengo apirileko, maiatzeko, ekaineko eta uztaileko zenbatekoek, urtarok aintzat hartu gabe, jada erakusten zituztenak.

Gobernuak garatutako politikek, langabeziaren arazoa konpontzetik urrun, larriagotu egiten dute, eta Gobernuaren aurreikuspen berri bakoitzak langabetu-errekor berri bat ezartzen du.

Lan-erreforma, krisi garaietan iraizpena merkatzean eta erraztean, galera jasanezina eragiten ari da enpleguari dagokionez.

Estatuko aurrekontu orokorrek murrizketa drastikoa ekarri dute enplegurako politika aktiboetan, bereziki autonomia erkidegoentzako transferentzietan, 1.700 milioi eurotik gorako murrizketak egin baitira (% 54). Murrizketa horiek amaiarazi egin dituzte langabetuei enplegua bilatzen laguntzeko politikak; izan ere, orientazio, prestakuntza eta birkualifikazio programak ukitzen dituzte. Hori guztia, Europako Kontseiluaren gomendioen aurka.

Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak izugarrizko

murrizketa egiten du langabetuen babesaren arloan; izan ere, kendu egiten ditu 45 urtetik gorakoentzako sorospen bereziak, adina 52 urtetik 55era igotzen du, eta bota egiten ditu gizarteratze errenta aktiboa jasotzen duten onuradunen ia % 90. Ehunka mila langabetu babesik gabe geldituko dira hurrengo hilabeteetan.

Gobernuaren politikak Espainiaren gizarte-haustura eragiten ari dira: langabezia handiagoa, babes txikiagoa, eskubide gutxiago eta, Erkidegoaren gomendio ororen aurka, politika aktibo gutxiago langabetuek lana aurkitu ahal izateko.

Testuinguru horretan, Gobernuak bere burua behartuta ikusi du, herriaren presioaren ondorioz, 400 euroko laguntza luzatzen duen errege dekretu bat onestera, baina kontuan hartuta dituen murriztapen ugariak, errege dekretua ez da lehengo Prepara programaren luzapen bat, kanpoan uzten dituelako gazte gehien-gehienak, seme-alaba bakarra duten iraupen luzeko langabetu guztiak eta familiarik gabeko langabetu guztiak, baita peitutasunean badaude ere. Halaber, kanpoan uzten

ditu aldi baterako kontratuak eduki dituzten langabetuak nahiz inolako prestaziorik jasotzen ez duten eta bere kide guztiak langabezian dituzten 583.000 familiak.

Horregatik guztiagatik, lehen mailako beharri-zan bat da Prepara programa lehengo Gobernu sozialistak onetsi zuen bezala mantentzea. Programa horrek luzaz erakutsi du bere eraginkortasuna, eta 450.000 langabetu baino gehiagoren enplegagarritasuna hobetzea ekarri du. Programa hori oinarritzen da orientazio, prestakuntza eta birkualifikazio arloko neurri aktiboen konbinazioan, eta, aldi berean, errenta-laguntza bat ematen dio langabetuari.

Ezin dugu onartu gaur egungo egoeran Prepara plana desitxuratzea, zeren hori baita langabezia agortzen duten herritarrek bizirauteko iturri bakarra, 400 euro horiek baizik ez baitute bizi ahal izateko.

Iruñean, 2012ko irailaren 18an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doako aholkularitza-zerbitzu bat sor dezan etxebizitza-utzarazpen egoeran dauden pertsonentzat.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita doako aholkularitza-zerbitzu bat sor dezan etxebizitza-utzarazpen egoeran dauden pertsonentzat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doako aholkularitza-zerbitzu bat sor dezan etxebizitza-utzarazpen egoeran dauden pertsonentzat.

Ministroen Kontseiluak utzarazpenen aurkako neurriei buruzko errege dekretu bat onetsi zuen iragan martxoaren 9an. Demokrazian utzarazpenen aurka egin den lehen plana da hori, legez garatuz hartara Espainiako Konstituzioko 47. artikulua, zeinak ezartzen baitu espainiar guztiek dutela eskubidea etxebizitza duin bat edukitzeko. Dekretu horren eranskin gisa, Gobernuak Praktika Zuzenen Kode bat taxutu du, garbi uzten duena

Gobernuaren konpromisoa utzarazpenen arazoari eman nahi dion konponbide globalarekin.

Espainiako kutxa eta banku nagusi gehienek bat egin dute, orain arte, Praktika Zuzenen Kodearekin. Praktika Zuzenen Kodea nahitaez bete beharrekoa da beren borondatez bat egin duten entitateentzat, eta gutxienez ere bi urtez atxikita egotea exijitzen du.

Nafarroako Gobernuak, bere aldetik, foru erki-degorako egokitu ditu, kasuko araudia onetsita, utzarazpenen arazoa arintzera bideratutako xedapenak.

Iruñeko Udalak ere iragan apirilean iragarri zuen exekuzio hipotekarioan espezializatutako informazio eta aholku bulego bat sortuko zuela. Zerbitzuak artatuko ditu ohiko bizileku gisa erabiltzen den etxebizitza baten jabe diren iruindarrak, hipoteka ez ordaintzeagatik etxebizitza galtzeko arriskua dutenak. Bulegoa Iruñeko Abokatuen Elkargoarekin lankidetzan eratu da, elkargoari 30.000 euroko diru-laguntza emanda xede horretarako. Bulegoa irailaren 10ean hasi zen lanean.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, Nafarroan 336 familiari utzarazi zitzairen beren etxebizitza 2011n. Krisia 2008an hasi zenez geroztik, 1.100 familia baino gehiagok galdu dute beren etxea. Datu horiek erakusten dute utzarazpenen arazoak erkidego osoan duen eragina.

Horregatik guztiagatik, Parlamentu-talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Akordio bat lor dezan Iruñeko Udalarekin eta Abokatuen Elkargoarekin, Nafarroa osora hedatzeko utzarazpenen aurkako aholku-zerbitzua.

2.- Bulego horri justiziaren, etxebizitzaren eta kontsumoaren arloko baliabide publiko eta doakoak eman diezazkion.

Iruñean, 2012ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira bertan behera utz dezaten eskola-materialaren gaineko BEZaren igoera.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira bertan behera utz dezaten eskola-materialaren gaineko BEZaren igoera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira bertan behera utz dezaten eskola-materialaren gaineko BEZaren igoera, eskola-materialerako laguntza-programa bat sor dezan errenta txikia duten eta/edo langabezian dauden familientzat, eta kenkari bat ezar dezan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eskola-materialarengatik, 600 euroko mugarekin.

Belaunaldi ezberdinen trebakuntza pertsonalera bideratutako politika publiko bat baino askoz ere gehiago da hezkuntza, aukera-berdintasuna eta ekonomia moderno baten lehiakortasuna sustatzen dituen politika bat ere bai baita. Eta, horren guztiaren sintesi moduan, hezkuntza politika

behar-beharrezkoa da, ez soilik krisitik irteteko, ezpada krisitik irtete hori bidezkoa izan dadin eta, are, etorriko diren krisien ondorioak ekiditeko edo leuntzeko.

Horretaz jakitun, Espainiako gizartea larrituta ari da bizitzen Espainiako Gobernua eta autonomia erkidego gehienak hezkuntzara bideratzen ari direla, programa guztietan, aurrekontu-murrizketak: ikasgelen masifikazioa, laguntza-programak kentzea, beka kentzea, irakasleak kaleratzea, eskoletako garraio- eta jantoki-zerbitzuak kentzea eta abar.

Hezkuntza arloko murrizketa horien artean bereziki nabarmenak dira eskola-materialari dagozkion erabakiak: testu liburuen doakotasun programak kentzea, beka-programak eta oinarrizko eskola materiala erosteko laguntzak kentzea eta, horrekin guztiarekin batera, BEZaren igoera ikusgarria ikasturtearen hasieran, % 4tik % 21era. Erabaki horiek guztiek azken batean eragotz dezakete –eta, betiere, zaildu– familia askok eta askok derrigorrezko hezkuntzako oinarrizko eskola materiala lortu ahal izatea, testuinguru sozial eta ekonomiko honetan muturreko zailtasun egoera bizi baitute.

Eskola materialaren BEZa 17 puntu igotzean, arlo horretan BEZik altuena duten Europar Batasuneko herrialdeetako bat bihurtu da Espainia – Espainiako familiak, eskola materialarengatik, Italiako familia baten halako bi, Alemaniako familia baten halako hiru edo Frantziako familia baten halako lau ordaindu beharko dute–, eta horretaz gain, frogatuta gelditzen da Gobernuaren ustez eskola materiala ez dela familien premia-premia-

ko ondasun bat, baizik eta alderantziz: luxuzko ondasun bat.

Unescok bere 21. gomendioan dioenez, oinarritzko eskola materialaren doakotasuna eskolabetekizunaren ondorio natural eta beharrezkotzat hartu behar da, eta horren barruan sartzen dira bai irakaskuntzako material kolektiboa, bai erabile- ra indibidualeko materiala ere; eta, edozein modutan ere, Estatuak landu egin behar ditu, zuzenean nahiz eskualde eta toki entitateentzako diru-laguntzen bidez, helburu hori duten programak. Espainiako Gobernua arlo horretan hartzen ari den erabaki guztiek –bereziki, eskola materialaren BEZaren igoerak– gomendio horrek ezarritako norabidearen kontrakoan ibiltzera garamatzate herri gisa.

Erabaki proposamena:

- Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernua premiatzen du bertan behera utz dezan eskola-materialaren gaineko BEZaren igoera, 20/2012 Errege Lege Dekretuan aurreikusia.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako hurrengo aurrekontu orokorretan kontusail bat sar dezan, eskola-materialerako laguntza-programa bat sortze aldera errenta txikia duten eta/edo langabezia dauden familientzat.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kenkari bat ezar dezan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eskola-materialarengatik, 600 euroko mugarekin.

Iruñean, 2012ko irailaren 18an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da jarraipena eman diezaion zenbait ikastetxetako garraio publikoaren finantzaketari.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita jarraipena eman diezaion zenbait ikastetxetako garraio publikoaren finantzaketari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

2012-2013 ikasturtearen hasierak ekarri du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak bertan behera uztea Haur eta Lehen Hezkuntzako Mendiialdea 1 eta Mendiialdea 2 ikastetxetako ikasleen eskola-garraio publikoaren zerbitzua. Garraio-zerbitzu hori 70eko urteetan ezarri zen,

ikastetxeetarako sarbideak bereziki arriskutsuak izateagatik; izan ere, ikasleek Gipuzkoa etorbideko bidegurutzea –trafiko handiko errepide nazionala– eta trenbidea –Iruña-Altsasu bideunea– igaro behar dituzte. Hirigintza-azterlanek, azterlan juridikoek eta are ekonomikoek erakutsi dute ez dagoela garraio-zerbitzu hori guztiz kentzeko arrazoirik, eta zerbitzua finantzatzeko eskumena Hezkuntza Departamentuarena dela.

Nafarroan eskola-garraioaren zerbitzua beste zenbait tokitan ere kendu da, arrazoi ekonomiko hutsak direla medio, ikastetxeetara joan behar duten haur txikien segurtasun fisikoa arriskuan jarzteraino.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du finantzatzen jarrai dezan Berriozarko hirigunetik Mendiialdea 1 eta Mendiialdea 2 ikastetxeetarako eskola-garraio publikoaren zerbitzua.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du gisa bereko arazoa duten Nafarroako beste ikastetxe batzuetako errealitatea azter dezan eta, bideko segurtasunak beharrezkoa egiten baldin badu berdin joka dezan Hezkuntza Departamentuak.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Foru parlamentariak: Pedro Rascón Macías, Xabier Lasa Gorraiz, Bakartxo Ruiz Jaso eta Mari-sa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat presta dezan Donapea IPlaren instalazioak orain dauden tokian mantentzeko aukerari buruz.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat presta dezan Donapea IPlaren instalazioak orain dauden tokian mantentzeko aukerari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gizarteko sektore askok –ikastetxeko hezkuntza-erkidegoak, sindikatuak, erakunde politikoak eta abar–gogor kritikatu dute Donapea Ikastetxe Politekniko Integrala gaur egun dagoen lursailetatik lekualdatzeko proposamena, asmo duena Ikerkuntza Mediko Aplikaturako Fundazioak hiru eraikin berri egitea, hiru ikerkuntza-zentro hartuko lituzketenak (ingeniaritza biomedikoa, gaixotasun aiantziak eta nutrizioa eta dietetika) .

Kritika zabalduenen oinarrian dago ez dela ez egokia ez beharrezkoa ikastetxe hori lekuz aldatzea; izan ere, Nafarroako Unibertsitateak –FIMA hartan sartuta dago– baditu hiru ikerkuntza-zentro horiek eraikitzeko behar adina lursail eta gehiago.

Zentro horien aurka, bestalde, ez da inor azaldu, jakina.

Arartekoak, bere bulegoan 2012ko ekainaren 27an 94 pertsonak –denak ere Donapea Ikastetxe Politekniko Integraleko eskola-erkidegoko kideak– aurkeztutako kexa baten erantzunean, Hezkuntza Departamentuari iradoki zion balioets zezan administrazio eskudunari eskatzea hirigintza-parametroekin aztertzeko ea bateragarria den Donapea Ikastetxe Politekniko Integralaren instalazioak mantentzea eta etorkizunean ikerkuntza biosanitarioko hiru zentro berriak ezartzea.

“b) Hezkuntza Departamentuak balioets dezan Sustapen Departamentuari eskatzea, edo, kasu bada, hirigintzaren kariatara eskumena duen Departamentuari, azterlan bat egitea, zeinean hirigintza-parametroekin aztertuko baita ea bateragarria den Donapea Ikastetxe Politekniko Integralaren instalazioak mantentzea eta etorkizunean ikerkuntza biosanitarioko hiru zentro berriak ezartzea, hiri-antolamendu egoki baten bidez, batera egon ahal izate aldera eraikin horiek guztiak eta beren zerbitzuak, bakoitza bere ezaugarri eta beharrezanekin eta haien arteko behar adinako muga eta distantziekin, elkarren arteko baldintzapenak eta eragozpenak ekiditeko. Hori guztia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak plangintzarako duen ahalmena deusetan ere galarrazi gabe”

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Nafarroako Gobernua premiatzen du txosten bat egin dezan, Arartekoak gomendatzen duen bezala, balioeste aldera ea bateragarria den bai irizpide ekonomiko eta sozialekin, bai hirigintza-irizpideekin, Donapea Ikastetxe Politekniko Integralaren instalazioak gaur egun dauden lekuan mantentzea eta ikerkuntza biosanitarioko hiru zentro berriak beren beharrezan araberako toki batean eraikitzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da burtsan egiten dituen inbertsioak arautu ditzan.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita burtsan egiten dituen inbertsioak arautu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da burtsan egiten dituen inbertsioak arautu ditzan.

Parlamentuan behin eta berriro eztabaidatu da Nafarroako Gobernuak Iberdrolaren akzioak erosi izana; funtsean, entitate publiko batek gisa horretako jarduketak egitearen komenigarritasunaren eta akzio horiek saltzearen edo ez saltzearen egokitasunaren inguruan.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren 2011ko ekitaldiko emaitzak ezagutu direlarik –zehazki, Sodenarenak, partaidetzako sozietatea den aldetik–, berriz ere jarri da mahai gainean Nafarroako Gobernuak Iberdrola enpresaren akzioak erosi izana.

Akzio horien erosketak –2007an egina– eragin zuen Comptos Ganberak fiskalizazio txosten bat egitea 2007ko abenduan. Txosten hartan, gomendioen azken atalean, proposamen-sorta bat egiten zaio Gobernuari, akzio haiek erosteko baliatutako bidea izan baitzen Nafarroako Gobernuak Sodena bezalako enpresa publiko bati erosketa-agindua ematea.

Comptos Ganberak, bigarren gomendioan, ondokoa planteatu zion Foru Administrazioari:

“Administrazioak burtsan inbertsioak egiteko baldintzak eta mugak ezarri eta arautu behar dira, eta kontuan hartu beharko litzateke legebiltzarrari inbertsio horiei buruzko informazioa ematearen komenigarritasuna.”

Hori horrela, Comptos Ganberaren txostena ikusita, eta kontuan hartuta litekeena dela Nafarroako Gobernuak noizbait erabakitzea Iberdrolaren akzioak saltzea, mozio hau aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Burtsan inbertsioak egiteko baldintzak eta mugak ezarri eta arautu ditzan, bai akzioak bai enpresa pribatuetan parte hartzeko beste modu batzuk erosteko eta saltzekoak.

2. Araitze horretan aintzat har dezan inbertsioak egiteari buruz Legebiltzarrari aldeztu aurretik informatzearen egokitasuna eta komenigarritasuna, eta egiten baldin badira, horien bilakaerari buruz.

3. Burtsako inbertsio horiek aldeztu aurretik aztertu beharko dira negozio-plan baten bidez, zeinean adieraziko baitira lortu beharreko helburu estrategikoak eta beharrezkoak diren baliabideak eta baliabide horien jatorria, erosketa egiteko.

Iruñean, 2012ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan Audenasarekiko merkataritza- eta dirulaguntza-politika.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alda dezan Audenasarekiko merkataritza- eta dirulaguntza-politika.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Egoera kritiko batean gaude, non osasuna, hezkuntza edo mendekotasuna bezalako oinarriko zerbitzu publikoak eraisten ari baitira krisi ekonomikoa dela kausa. Aldi berean, murrizketak inposatzen zaizkie langile publiko eta pribatuei lan, ordainsari eta enpleguaren arloetan.

Gizartearen zati handi bat langabeziara bulkaututa dago eta, horrenbestez, bizi-kalitatea nahiz zerbitzuak galtzearen eta arian-arian marjinatua

izateko gurpilean sartuta dago, eta erakundeek, baliabide ekonomikorik ez dagoelako aitzakian, ez diote egoera gero eta dramatikoago horri aurre egiten.

Horregatik gertatzen da erabat justifikaezina egoera honetan mantentzea 17 milioi euro baino gehiagoko gastua Nafarroako aurrekontuetan, autobidearen erabilera dela-eta Audenasari ematen zaion diru-laguntzaren merkataritza-politika finantzatzekoa.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Audenasari dagokionez diru-laguntzen eta merkataritzaren arloan aplikatzen ari den politika alda edo bertan behera utz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aldaketa hori egitean ondoko helburuak kontuan har ditzan:

a) Politika horrek Nafarroako urteko aurrekontuen gainean duen kostu ekonomikoa nabarmen murriztea edo erabat desagertzea.

b) diru-laguntzaren bat mantenduz gero, horren onuradun bakarrak izatea Nafarroan errol-datatuko pertsonak edo gure erkidegoan kokatutako enpresak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aldaketa hori egin dadin halako moduan non 2013ko aurrekontu-ekitaldian indarrean izanen den.

Iruñean, 2012ko irailaren 20an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren prozedurak ezar ditzan hizkuntza-eskubideak betetzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren prozedurak ezar ditzan hizkuntza-eskubideak betetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak ezarri zuen euskarak Nafarroan duen estatusaren araubidea. Foru Lege horrek ezarri zuen euskara eta gaztelania Nafarroako hizkuntza berekiak direla, eta, horren ondorioz, herritar guztiek dutela horiek jakin eta erabiltzeko eskubidea. Halere, foru lege horrek gaztelaniari soilik aitortu zion ofizialtasuna Nafarroa osoan, eta euskararen ofizialtasuna eremu euskalduna deiturikora mugatu zuen. 18/1986 Foru Legearen aitzin-solasaren beraren arabera, hizkuntzek lehentasunezko tokia dute kultur ondarearen barruan. Hizkuntza, giza komunikaziorako tresna nagusia denez, giza harremanetako funtsezko euskarri gertatzen da, kolektibitateari bere identitatea ematen dion elementua, eta gizarteetako kideen elkarbizitza eta ulermenerako faktorea. Guk lege hori kritikatu dugu ez diolako erantzuten euskarak Nafarroako gizartean duen errealitateari, ez delako gizarteratzeko tresna bat eta oso urrun gelditzen delako nafar guztien berdintasuna hizkuntza eskubideei dagokienez bermatzetik. Halere, sarri askotan exijitu dugu legeak ezartzen duen gutxienekoa bete dadin gutxienez ere; esate baterako, 10. artikulua-aren arabera, herritar guztiek dute Administrazio

Publikoarekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea eta haiek hautatzen duten hizkuntza ofizialean artatuak izatekoa. 14. artikulua ere esaten du Justizia Administrazioarekiko harremanetan herritar guztiak beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izanen direla, indarreko legedian ezarritakoarekin bat.

Hizkuntza batean harremanak izateak esan nahi du hizkuntza horretan komunikatu ahal izatea, bai igorle gisa bai hartzaile gisa. Berako Udalak ikusi du eskubide hori ukatu zaiola Nafarroako Gobernuaren aurka jarritako epaiketa batean. Nafarroako Gobernuak ez du aski izan hizkuntza eskubideak eremutan banatzearekin, eta ez ditu errespetatzen ezta eremu euskalduna deiturikoa ere.

Nafarroako Gobernuak gogoan izan beharko luke zer adierazpen sinatzen dituen; besteak beste, hizkuntza eskubideei buruzko adierazpen unibertsala a (Bartzelona, 1996), zeinaren artikuluen artean ondokoak nabarmendu baitaitezke:

“15. artikulua.

1. Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du bere hizkuntza ofizial gisa erabil dadin bere lurraldearen barruan.

2. Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du jarduera judizial eta administratiboak, dokumentu publiko eta pribatuak eta erregistro publikoetan egindako inskripzioak baliozkoak eta eragingarriak izan daitezten, lurraldeko hizkuntza propioan egiten direnean; eta inork ezin izanen du alegatu hizkuntzahori ez dakienik.

16. artikulua.

Hizkuntza-erkidego zehatz bateko kide orok eskubidea du bere hizkuntzan harremanak izateko, eta, orobat, hizkuntza horretan harrera izateko, hizkuntza hori zein lurraldetan hizkuntza propio izan eta lurralde horretako botere publikoen eta administrazio-dibisioetako zerbitzuen aldetik, zentralak izan, lurraldekoak, tokikoak nahiz lurraldez gaindikoak izan.

17. artikulua.

1. Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du dokumentazio ofiziala bere hizkuntza propioan eskura izateko eta eskuratzeko, paperean, euskarri informatikoan edo beste edozein euskarritan, hizkun-

tza hori zein lurraldetan propioa izan eta lurralde horri dagozkion harremanetan.

2. Botere publikoek eskura izan behar dituzte lurralde-hizkuntzetan prestatutako formulario, inprimaki eta ereduak, paperean, euskarri informatikoa edo beste edozein euskarritan, eta jendeari halakoak eskaini behar dizkie kasuan kasuko hizkuntza zein lurraldetako hizkuntza propioa izan, lurralde horiei dagozkien zerbitzuetan.

18. artikulua.

1. Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du berari dagozkion legeak eta gainerako arau juridikoak lurraldearen hizkuntza propioan argitara daitezen.

2. Botere publikoek, beren jarduera-eremuaren barruan, lurraldearen arabera historikoa den hizkuntza bat baino gehiago dutenean, hizkuntza horietan argitaratu behar dituzte legeak eta gainerako arau juridikoak, kontuan hartu gabe haien hiztunek beste hizkuntzak ulertzen dituzten ala ez.”

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren prozedurak ezar ditzan Nafarroan bizi diren pertsona guztien hizkuntza eskubideak betetzeko, euskaraz bizitzeko aukera emanez hala erabakitzen duenari, inolako trabarik jarri gabe, zioen azalpenean azaldu bezala Berako Udalarari gertatu zaion moduan, uste dugulako ez direla hizkuntza eskubideak bermatu eta euskara erabiltzeko aukera oztopatu dela.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatu ditzan, eskubide horiek bermatzeko beharrezkoak diren neurriak eta tresnak ezarriz.

Iruñean, 2012ko irailaren 20an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2012ko irailaren 19an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Manten dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa, oraingo hau 2012ko abuztuaren 15ean bukatzen denetik aitzina.

2. Berehala eguneratu dadin eta puntualtasuna manten dezan programaren onuradunei ordainketak egitean.”

Iruñean, 2012ko irailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da zerbitzu jarraitua ematen segi dezan Oronoz-Mugairiko osasun etxean.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2012ko irailaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da zerbitzu jarraitua ematen segi dezan Oronoz-Mugairiko osasun etxean”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du zerbitzu jarraitua ematen jarrai dezan Oronoz-Mugairiko osasun etxean.

2. Nafarroako Parlamentuak, ikusita osasun-laguntzaren eredu-aldaketarekin zerikusia duten eragileek agerturiko arbuio orokorra, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du hasia duen prozesua gelditu dezan, eta, ahalik eta adostasun-maila handiena lortze aldera, benetan parte-hartzailea izanen den prozesu bat abian jar dezan, helburu hartuta osasun-laguntzaren ereduaren azterketa sakona, non, batetik, identifikatu beharko litzatekeen zer arlo diren bereziki landu beharrekoak, eta, bestetik, definitu beharko litzatekeen zer jarduketeta eta antolamendu-aldaketata liratekeen beharrezkoak osasun-laguntzaren kalitatea hobetzeko.”

Iruñean, 2012ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira erabat errespetatu dituzaten Parlamentu honek onetsitako legeak eta zehatz-mehatz bete dituzaten osasun arloko Nafarroako foru legeak.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2012ko irailaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira erabat errespetatu dituzaten Parlamentu honek onetsitako legeak eta zehatz-mehatz bete dituzaten osasun arloko Nafarroako foru legeak”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu erabat errespetatu dituzaten Parlamentu honek onetsitako legeak eta zehatz-mehatz bete dituzaten osasun arloko Nafarroako foru legeak.”

Iruñean, 2012ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, Unicefek sustatutako “Una Promesa Renovada” kanpainarekin bat egitekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1.- Bat egiten du Unicefen ‘Una Promesa Renovada’ kanpainarekin. Kanpainaren helburua da exijitzea bete dadila Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, zeinak 2. artikuluan ondokoa baitio: ‘Parte diren estatuak errespetatu eginen dituzte konbentzio honetan adierazitako eskubideak, eta haien jurisdikzioaren pean dauden haur guztiei aplikatuko zaizkiela, inolako bereizketarik gabe, hau da, kontuan hartu gabe arraza, azalaren kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo

bestelakoa, jatorri nazionala, etnikoa edo soziala, posizio ekonomikoa, ezintasun fisikoak, jaiotza edo haurraren beste edozein ezaugarri, edota bere gurasoena edo bere ordezkari legalena”

2.- Berretsi egiten du haurren eskubideekiko eta ongizatearekiko konpromisoa.

3.- Nafarroako gizarte zibileko erakundeak gonbidatzen ditu ekimen hau babestu dezaten.

4.- Erabaki du adierazpen instituzional hau helaraztea Unicefek Nafarroan duen ordezkariari eta Unicef Españari”.

Iruñean, 2012ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatu eta gaitzetsi egiten baitu Gobernuak legea bete nahi ez izatea, eta, hala, Nafarroako Parlamentuari bere kontrol-eginkizuna egiten ez uztea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak salatu eta gaitzetsi egiten du Gobernuak legea bete nahi ez izatea. Izan ere, ez dio uzten Parlamentuari, eta beraz

oposizioari, Gobernua kontrolatzeko bere eginkizuna gauzatzeko; kasu honetan, Nafarroako Kontu Orokorren edukia ez emanez, dokumentazio hori hain garrantzitsua izanda”

Iruñean, 2012ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, *Danza Escena* programa bertan behera uzteko arrazoiei buruzkoa.**PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, *Danza Escena* programa bertan behera uzteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari José Luis Sánchez de Muniáin jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi jakin dugu, hedabideen bitartez eta Kultura Departamentuak horri buruzko jakinarazpen ofizialik egin gabe, Nafarroako Gobernuak erabaki duela bertan behera uztea *Danza Escena* programa, 220.000 euro esleiturik zituena eta iragan irailaren 14an hasita behar zuena.

Parlamentari honek ondokoa galdetzen dio Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariari:

Zer arrazoi izan ditu Nafarroako Gobernuak programa hori bertan behera uzteko?

Iruñean, 2012ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, zenbait deialdi bertan behera uzteko foru aginduen gaineko iritzia buruzkoa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako galdera, zenbait deialdi bertan behera uzteko foru aginduen gaineko iritzia buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli parlamentari jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

2012ko irailaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren hiru foru agindu argitaratu ziren, indarrrik gabe uzteko ondoko deialdiak:

1.- 2012an arte eta kultur jarduerak batera antolatzeke Nafarroako udalei diru-laguntzak emateko deialdia, martxoaren 21eko foru agindu bidez onetsia. Liberatutako gastua 107.000 eurokoa da.

2.- Nafarroako Antzokien Sarerako diru-laguntzetarako 2012ko deialdia, martxoaren 22ko foru agindu bidez onetsia. Liberatutako gastua 471.000 eurokoa da.

3.- "Artea eta Kultura" programaren barneko kultur jarduerak egiteko Nafarroako toki entitateei diru-laguntzak emateko deialdia, martxoaren 22ko foru agindu bidez onetsia. Liberatutako gastua 247.000 eurokoa da.

Hasiera batez aurreikusitako programak kentzeak edo esleitutako diru-kopuruak murrizteak agerian uzten dute, berez, Gobernuaren kultur politika, eta jada egindako deialdiak indarrrik gabe uztea jauzi kualitatibo negatibo bat da, Foru Komunitateko Administrazioaren historian zehar aurrekaririk ez duena.

Galdera:

- Nafarroako Gobernuak nola baloratzen du jarduketa hori bere kultur politikaren testuinguruan?
- Nork hartuko du bere gain ikuskizun jadanik egindakoen ikuskizunen ordainketa eta bertan behera utzitakoen kalte-ordaina?

Iruñean, 2012ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, *Danza Escena* programa bertan behera uzteko arrazoiei buruzkoa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako galdera, *Danza Escena* programa bertan behera uzteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko.

Erkidegoko hedabideek jaso duten albistearen arabera, Nafarroako Gobernuak *Danza Escena* programa bertan behera uztea erabaki du. Programako ekitaldiak iragan irailaren 14an hastekoak eta heldu den azaroaren 11n bukatzekoak ziren.

Danza Escena Jaialdia aurtengo programa izarrerako bat zen; izan ere, kultur ekintzako programak izandako murrizketa orokortua gorabehera, programa horrek hazkundera izan zuen 2011n esleitu zitzaizkion 100.000 euroengatik 2012ko 220.000etara.

Jaialdi hori Nafarroako dantza konpainien erakusleho nagusia zen; konpainia horietako batzuek ziklo honetan lehen aldiz antzetzeko berariazko ikuskizunak zituzten prest, eta erabaki horrek ziurgabetasuna eragin du. Hortaz, hauxe jakin nahi dugu:

- Foru exekutiboak zer arrazoi izan ditu erabaki hau hartzeko?

- Noiz eta nola informatu zaie konpainiei programa bertan behera uzteari buruz?

- Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia hartutako erabakiari buruz?

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik aipatu programa bertan behera uzteak konpainiei eragindako kaltea nolabait ordaintzeko?

Iruñean, 2012ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, Ledeako zubiaren egoerari buruzkoa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, Ledeako zubiaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, galdera hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, Nafarroako Gobernuako Sustapeneko kontseilari Luis Zarraluqui jaunak erantzun dezan.

Kontuan hartuta Ledeako zubiaren egoera txarra, horrek berekin dakarren arriskuarekin, eta zubia zaharberitzeko kontusail bat onetsita zegoela, ikusita obrak hasi gabe daudela, azal diezadakezu zertan den aipatu zubia zaharberitzeko proiektua? Zergatik ez dira hasi obrak?

Iruñean, 2012ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, *fracking* izeneko gas-erazketa teknikari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, *fracking* izeneko gas-erazketa teknikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Irailaren 22an, *fracking*aren aurkako nazioarteko eguna ospatzen da mundu guztian, naturaren

defentsaren aldeko ehunka elkarte ekologistak sustatuta.

Frackinga gasa erazteko sistema ez-konbentzional bat da; gasa duten sakoneko harkaitz-geruzak xehatzen dira, osasunarekin eta ingurumenarekin agresiboak diren gehigarri kimikoak, harea eta ura oinarri dituen fluido bat presio handiarekin injektatuz. Teknika hori gero eta jende gehiagok gaitzesten du, ez soilik herritarren artean, zeren eta badira zenbait gobernu neurriak hartzen eta gisa horretako jarduketak debekatzen ari direnak.

Zenbait ikerketa-baimen eskatu direla ikusita (izapidetutako baimenak Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldearen % 13,5 ukitzera heltzen dira), eta ikusita ustiapen-zundaketaren bat egin dela jadanik, parlamentari honek lehengaien gaineko politika orokorrari buruzko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, gasa erazteko teknika horri buruzkoa, jakite aldera zein den bere jarrera etorkizuneko balizko jarduketei buruz, bai eta gure lurraldeari ingurumenaren arloan ekarriko lizkiokeen kalte larriei buruz ere.

Iruñean, 2012ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, kanpoan kontratatu behar izan diren publizitate, propaganda edo kanpainetan eginiko gastuari buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, kanpoan kontratatu behar izan diren publizitate, propaganda edo kanpainetan eginiko gastuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak publizitatearen arloan, zenbait ekitalditan, izandako gastuaren berri izaten saiatu naizenean, parlamentari naizen honek arlo horrekin lotuta egon litezkeen kontusail eta izendapen pila aurkitu dut, hainbeste non ia ezinezkoa baita errealitate-antza izan lezakeen hurbilketa-saio bat egitea ere.

Hori ikusita, ondoko informazioa eskatzen diot Nafarroako Gobernuari:

1.- Publizitatearen, propagandaren edo era guztietako kanpainen gastu-zenbatekoak, 2003tik 2011ra bitarteko ekitaldietan kanpo-kontratazioa behar izan dutenenak, egin edo bete ahal izateko.

2.- Zenbateko horiei buruzko urtez urteko xehetasunak, departamentuz departamentu.

3.- Kasu, ekitaldi eta departamentu bakoitzean, gastu osoa 6.000 eurotik gorakoa izan duen jarduketa indibidual bakoitzaren izendapena, jarduketa egiteko kontratatu den enpresaren izena, lana esleitzeko baliatu den administrazio-formula eta fakturatutako zenbateko osoa.

Iruñean, 2012ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Díaz